



**Modesto Escobar**

Soziologia eta Komunikazio saileko katedraduna  
Salamancako Unibertsitatea

Modesto Escobar Soziologiako doktorea da Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta Gizarte Zientzietako Soziologia eta Komunikazioa Departamentuko katedraduna Salamancako Unibertsitatean ([modesto@usal.es](mailto:modesto@usal.es)). Hainbat liburu idatzi ditu: *El análisis de segmentación*, *Análisis de datos con Stata*, *Los pronósticos electorales con encuesta eta Socioestadística*. Era berean, *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación* izenburuko lana argitaratu du beste hainbatekin batera, eta hainbat artikulu idatzi ditu soziologiako aldizkarietan: “La presentación del self en el ciberespacio”, “Sentido, referencia y atribución en las descripciones personales”, “El análisis reticular de coincidencias”, “El efecto de la ponderación y la imputación en el sesgo de los estudios electorales en España”, “Deviation, inequality, polarization: some measures of social diversity”, “Redes semánticas en textos periodísticos: propuestas técnicas para su representación”, “La calidad democrática. Una propuesta para su medición por expertos”, “Analyzing coincidences with network analysis” eta “Network Coincidence Analysis: The netCoin R Package”. Gaur egun, sare analitikoetarako buruzko koaderno metodologiko bat egiten ari da, eta, horretarako, hainbat programazio-pakete osatu ditu, zeinaren bitartez datuak eta informazioa bihurtzen baitira galeriak, mapak eta sareak.



**Cristina Calvo**

Salamancako Unibertsitateko PhD

Cristina Calvo López Soziologiako doktorea da Salamancako Unibertsitatean, eta unibertsitate bereko ikertzailea. Azterketa Soziologikoen Ikerketa Taldeko kide da, eta hainbat ikerketaproiektutan parte hartzen du, besteak beste netCoin (PGC2018-093755-B-I00) eta ANDAR (PDC2022-133355-I00). Hainbat artikulu idatzi ditu, hala nola “Análisis de la dinámica, la estructura y el contenido de los mensajes de Twitter: Violencia sexual en #Cuéntalo”, “Exploring

the archaeology of immersive visual media in Spain (1822–1872)” eta “Educational attainment and new age digitale entertainment: Are video games a determining factor in the academic achievement of high school students?”, eta grafoen bistaratze eta azterketa metodo berriei lotutako hainbat R pakete estatistikoren sorkuntzan, garapenean eta zabalkundean parte hartu du.

### ***Berrikuntza liburutegietan: bertako katalogo digitalak eraldatzeko algoritmoak***

Iraganean, liburutegi orok eduki behar zuen kontsultarako lanen saila, eta sail horietan nagusi ziren entziklopedia orokorrak. Baina, gaur egun, lan horien presentzia sinbolikoa baino ez da, Wikipediaren eta kontsultarako beste webgune batzuen gorakadaren aurrean. Aldaketa hori da Internetek liburutegiei ekarri dien erronka ugarietako bat. Liburutegiek berrasmatu egin behar dute beren burua, funtsezkoak izan nahi badute giza ezagutzaren kontserbazioan eta zabalkundean. Testuinguru horretan, adimen artifiziala gailentzen ari da funtsezko tresna gisa.

Txosten honetan, liburutegi bateko katalogo-zerrendan dauden egileak konpilatzeke eta irizpide espezifiko batzuk –nahitaez ez daudenak erregistro tradizionaletan– betetzen dituztenak ateratzeko diseinatu den algoritmo erdiautomatiko baten erabilera aztertzen da. Prozesu hori autoritate iturrien APLei galdetuz egiten da, hala nola VIAF, BNE, SUDOC, Getty, Wikidata, Wikipedia eta beste gordailu digital batzuk.

Gainera, eztabaidatuko da autoritateei buruzko informazio hori nola bihur daitekeen webgune interaktibo bat, prozesu baimendu bat erabiliz. Webgune horrek galeria eta mapa formatuak hartzen ditu, eta, horrela, interes kultural espezifikoak dituzten erabiltzaileentzako baliabide espezializatua eta interaktiboa eskaintzen du.

Txosten honetako kasu aipagarrietako bat Reina Sofía Zentro Museo Nazionalaren liburutegiko katalogoarekin egindako proiektua da. Haren bitartez, emakumezko egileen 12.000 erregistro baino gehiago berreskuratu ziren. Erregistro horiek webgune interaktibo batean daude jarrita, eta algoritmo adimendunek ezagutzarako sarbidea aberasteko eta zabaltzeko duten ahalmenaren eredu aipagarria da.